

Katixa Agirrek eskuratu du Igartza saria, 'Etxetik irten gabe' ipuin liburuaren proiektuagatik

BENAT ZAMALLOA

Donostia

Katixa Agirrek irabazi du X. Igartza sari nagusia, *Etxetik irten gabe* ipuin bildumaren proiektuagatik. Irati Jimenezek, ostera, akzesita lortu du *Ezinen ostalua* eleberraren proiektuagatik. Izan ere, oraindik biak proiektuak dira. Katixa Agirrek 6.000 euro saria jasoko du, eta Irati Jimenezek 3.000 eurokoa.

Igartza Saria irabazteagatik beka eskuratu dute bi idazleek, eta urtebete izango dute idazlanak osatzeko. Osatu ondoren, argitaratzeko konpromisoa hartu dute antolatzaileek, Elkar argitaletxeak, Beasaingo Udalak eta CAF enpresak. Era horretara, 35 urtetik beherako gazteak eta bi liburu baino gehiago argitaratu ez dituztenak lagundu nahi dituzte. Aurten, Igor Estankonari, Xabier Etxeberriari eta Karmele Jaiori egokitu zaie aurkeztutako 13 lanetatik saridunak aukeratzeko.

Katixa Agirrek hasieratik zuen argi *Etxetik irten gabe* ipuin bilduma izango zela, baita ipuin guztiek zerbait izango zutela komunean. «Burura ipuin ugari etorri zitzaizkidan, eta ikusi nuen etxea zela ipuin horien gunea», dio Agirrek. Ipuin guztietan agertuko da etxea. «Ez da bakarrik espazio moduan agertuko, ia ia pertsona moduan ere bai. Etxeak baldintzatuko du askotan ipuinaren nondik norakoa». Azkenaldian, arazoak izan ditu etxearekin, eta horregatik aukeratu du ipuinen gune bezala. «Asko pentsatzen dut etxebizitzaren inguruan; non bizi, nola bizi, nola pagatu alokairua...».

Eguneroko elkarbizitzaren arazoak jasoko ditu idazlanetan. Etxe baten barruan egon daitezkeen «arazo eta miseriak» horiek. Elkarbizitzaren alde onak aipatuz gero, horrenbeste literatura emanik ez dela usteta, gehienbat «alde ilunago, ezkutuago eta miserableagoak» onduko ditu.

Etxeak eta etxebizitzaren arazoei lotuta, gazteak izango dira ipuinetan. Gaztea izateaz gainera, eta gazteentzako beka izateaz gainera, gaztaroan etxebizitzaren gainean buruhauste handiak daudelako aukeratu ditu gazteak ipuinetarako.

Etxetik irten gabe idazlana ez da Agirrek argitaratutako lehen liburua; aurten, *Sua falta zaigu* (Elkar) kaleratu baitu. Ipuin bilduma da hori ere. Ipuinak idazten sentitzen da erosoan idazlea, eta ez du, mementu, nobelarik idazteko asmorik. «Ez dut ideia izugarri on bat nobela bat idazteko, eta horregatik nahiago dut formatu txikiagoan ibiltzea. Eleberririk bat idazteko ideia zoragarri bat beharko dut,



Katixa Agirre idazlea Igartza saria eskuan. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Etxea garaile

horretan sartuta egoteko, eta bertan obsesionatzeko».

HIRIZ HIRI. Irati Jimenezen lanean ere ipuinak dira nagusi. Horretan baina, ipuinak eleberriko gaiak dira, ipuinei buruzko nobela bat da. «Ipuinak ditu, ipuinak kontatzen ditu, baina nobela bat da», azaldu du idazleak. Errealitea eta fantasia nahastuko ditu eleberririk: «Ezinezkoak posible egiten dituen ipuinak kontatzen ditu». Ez ditu errealitatea eta fantasia gehiegi desberdinduko.

Aurreko liburuetan —*Malcolm X, duintasunaren kolorea* (Txalaparta, 2002) eta *Bat, bi Manchester* (Elkar, 2006)— ez bezala, liburu honetan, pertsonaia ugari izango dira. «Pertsonai askoren elkarriketak da. Kontakizuna pertsonaien artean zatituta dago. Batzuk ezinezko loturen bitartez lotzen dira; ezinezkoak eta, aldi berean, agerikoak direnez». Jimenezek azaldu

duenez, pertsonaietako batzuk, galduta daude noraezean; eta beste batzuk, galdu ziren, eta bide baten bila ari dira. Galduta noraezean dabilzan, neska eta mutil bana izango dira protagonistak.

Autobiografiakoa izango da lana, eta gizartea nola ikusten duen azalduko du. Gizartea noraezean ikusten du Jimenezek: «14-15 urterekin dituzun galderak ez dituzula izango; eta gero, 30 urterekin berez galdera horien erantzuna jakin jakin beharko zenukeelako presioa duzu, eta ez dakizu. Nagusia izango zarelako pentsatzen duzu, eta gero konturatzen zara ez dela horrela,

«Burura ipuin ugari etorri zitzaizkidan, eta ikusi nuen etxea zela ipuin horien gunea»

KATIXA AGIRRE
IDAZLEA

pertsonaje bat interpretatzen ari zarela, eta gurasoek ere berdin egin dutela».

Herrialde askotan gertatzen da eleberria, «puzzle zoro bat» da. Bilibo, Amerika eta Bagdad dira kokaleku nagusiak, baina Europako hiri asko ere irakurri ahalko dira. «Hiriz hiri ateratako argazkiak dira nobeletako amuak». Hiriek zein inpresio eragiten dieten azalduko du: «Postala idaztea da azkenean, baina hiriek sentazioen eta mementuen postala».

Azken urteotan, asko bidaiatu du, eta bidaia horietako batean, Berlinen, otu zitzaion ideia duela bi urte. Buruan izan du bi urte horietan, eta «elur bola» bat bezala hasiz joan da. Idazteko, baina, ez du horrenbeste denbora hartuko. Aurreko liburuek ere oso azkar idatzi zituen astebetean edo bi astetan, ez daki beste modu batean idazten.

Ipuin liburu bat idaztea gustatuko litzaioke, baina ez du asmatzen. «Ez dakit zehazten eta beti ideiak hasiz doaz, puztu egiten dira. Ipuinak idatzi nahi izan ditudanean ezin izan dut, azkenean, ipuinei buruz idatzi behar izan dut».

Iban Zalduaren 'Itzalak' itzuliko dute itzultzaileen lantegian

ERREDAKZIOA

Donostia

Iban Zalduaren *Itzalak* liburuko (Erein, 2004) izenburu bereko narrazioa landu eta itzuliko dute lau itzultzailek, idazlearen laguntzaz, EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak antolatutako itzultzaileen lantegiaren laugarren ekitaldian. Zalduaren ipuinaren frantsesetzeko itzulpena Fermin Arkotxak egingo du; alemanekoa, Christiane Bendelek; italierazkoa, Roberta Gozzik; gaztelaniazkoa, Angel Errok.

Irailaren 10ean, astelehenarekin, hasiko da itzultzaileen lantegia, Durangoko Ibaizabal ikastolan. Lau egun egingo dituzte elkarrekin lanean lau itzultzaileek eta Zalduak. Itzultzaileek beren zaltzak idazleari zuzenean planteatzeko aukera izango dute.

IRAILAREN 13AN, MAHAI-INGURUA. Lantegiaren azken egunean, irailaren 13an, ostegunarekin, mahai-inguru bat izango da, Durangoko Landako Elkartegiko hitzaldi aretoa, 19:00etan hasita. Fermin Arkotxa, Christiane Bendel, Roberta Gozzi eta Angel Errorekin batera, Iban Zalduak ere parte hartuko du mahai-inguru horretan. Ordurako itzultzaileek amaituak izango dituzte lau itzulpenak, eta mahai-inguruan esperientziaren berri emango dute, Zalduarekin batera; amaitu aurretik, narrazioaren pasarte bat irakurriko dute bost hizkuntzetan, musikaz lagunduta.

Itzultzaileen lantegiaren aurreneko ekitaldian, 2004an, Pello Lizarralderen *Un ange passe* ipuina itzuli zuten lau hizkuntzatara, Tarrazonan (Espainia): Mia Rissanek eta Joseba Ossak, suomiera; Pernille Hansenek eta Juan Mari Mendizabalek, danierara; Mikhail Zelikovek eta Jose Moralesek, errusierara; Edurne Alegriak, frantsesera.

2005ean, Jokin Muñozen *Hausurak* itzuli zuten, Elgetan (Gipuzkoa): Gabi Schwabek, alemanera; Roberta Gozzik, italierara; Daniel Lujanek, katalanera; Adam Zawiszewskik, polonierara.

Iaz, berriz, Harkaitz Canoren *Batere valsik gabe amaituko da narrazio hau* ere itzuli zuten, Irunen: Kristin Addisek, ingelesera; Kattalin Totorikak, frantsesera; Isak Xubinek, galizierara.

GABOTA DANTZA IKASTEGIA
Ballet klasikoa • Luzatez gimnastika
Dantza garaikidea
Matrikulazio egunak: irailaren 12a eta 13a, 18:00etatik 20:00etara.
Ikasturte hasiera: irailaren 17a.